

Mikel Urdangarin ohiko biluztasunean baina doinu keltiarrez jantzia datorkigu

'Badira hiru aste' CDak Urdangarin eta Eskoziaren arteko zubia izan nahi du

Aitziber Laskibar / Bilbo

Mikel Urdangarin gazte zornotzarrak bere bigarren diskoa kaleratu du. *Badira hiru aste* izeneko CD berriak lehenengoaren ildo jarraitzen du, baina aurrekoa baino jantzi eta landuagoa da; «ez da hain biluzi eta intimoa; ildo berekoa da, baina erritmo, mugimendu eta barietate handiagoa du», esan zuen abeslariak.

BADIRA HIRU ASTE izenburuak adierazten duen bezala, iraganera egin begirada bat da diskoa; iragan labur batera. Izan ere, Eskoziara egingako bidaia batean oinarritzen da bere lana; asko eragin duen bidaia, gazte zornotzarrak adierazi duenez. Eskoziarako bidaian, lagun bibolin jole bat egin zuen: Jonathan Bews. Elkarrekin abesti batzuk jo zituzten, eta bere bibolinen doinu keltiarrak Mikel Urdangarin liluratu zuen. Hortik dator *Badira hiru aste* diskoa kutsu keltiarrak biltzeko arrazoia. Gainera, diskoaren grabaketan Jonathan Bews berak ere parte hartu du bibolina joz, eta ondorioz ukitu berezia eman dio diskoari.

Bibolinaz gain, gitarra akustiko, piano, baxu, txelo, soinu eta gitarrak ere laguntzen dute Mikel Urdangarinen ahotsa. Baina diskoa tresna horiez jantzita badago ere, gitarrak jarraitzen du izaten bere funtsezko laguntzailea, eta ez dio beldurrik jendeaurrean gitarraren eta ahotsaren biluztasunean abesteari.

Galtzailearen irudia nagusi

Ez da disko kontzeptuala; ez du hasiera eta amaiera bat, liburuek izan ohi duten moduan. Hala ere, badu kantu gehienak biltzen dituen gai nagusi bat: galtzailearen irudia. «Gizarte honetan galtzailearen irudia da nagusi, eta irudi horrek beti erakarri nau; baina horiek niretzat ez dira galtzaileak», adierazi zuen kantautoreak.

Mozkortiarrez, drogazaleez, maitasun eriak defraudatutakoez, bihotz minak jota daudenez eta iheslariez ari da besteak beste, galtzaileez mintzatzen denean; hot,



MIKEL MARTINEZ

Mikel Urdangarin kantaria atzo, Bilbon.

gizarteak galtzailatzat jotzen dituenek. «Mozkorraren irudiak, adibidez, beti maiteminduta eduki nau; hain zuzen ere Irlandan edo Eskozian topa daiteke mozkor horren irudia, taberna batean hitz egiten, filosofatzen eta jende sano askok baino gauza zentzudunagoak esaten», adierazi zuen Urdangarinek.

Kontzertuei dagokienez, maiatzera arte ez du abesti berri guztiak emango dituen

emanaldirik eskainiko, oraindik ez baititu guztiak prest. Hala ere, pixkanaka kontzertuetan kantu berriak gehituz joango da abeslaria.

Abesti berri guztiak eskaini ez arren, lehen aurkezpen emanaldia bihar izango da Elorrion. Larunbatean Bilbon arituko da eta hilaren 16an Gasteizen. Maiatzetik aurrera, bestalde, abesti berri guztiak prest dituenek, kantaldi ugari eskainiko ditu eta

posible da horietako batzuetan Jonathan Bews bibolin jole eskoziarrak ere parte hartzea. Maiatzean, ekainean edo udan aurreikusten baita Bews Euskal Herrira etortzea.

Gainontzekoak bibolinik gabe izango dira, baina batzuek bibolina faltan izango duten arren, bibolinik gabe ere kantuek bere funtsa mantentzen dutela dio kantautoreak.

Lagun asko izatearen zortea

GAZTELUPEKO HOTSAK diskoetxearen eskutik kaleratu da Mikel Urdangarinen *Badira hiru aste* disko berria. Grabaketa berriz, Bilbon egin da, Entzun estudioan; abeslariaren hitzetan, «modu xumean baina jende profesionalarekin».

Diskoetxeko arduradun Xarrak disko berriaren kalitatea aipatzeaz gain, lagun asko izatearen zortea azpimarratu zuen: «Disko hau Mikelek lagun asko dituelako erakusle da, eta gainera horietako batzuk musikariak dira». Horren adierazgarri da lan

honetan izan dituen laguntzaileen zerrenda.

Jonathan Bews bibolin jole edinburgharra da laguntzailerik azpimarragarriena, hein handi batean diskoari keltiar koloreak eman dizkion pertsona baita. Urdangarinek Eskoziara eginiko bidaian ezagutu zuen Bews, eta musika keltiarrarekiko zaletasuna neurri batean berak sortu ziola pentsa daiteke. Diskoaren grabaketan ere doinu berezia eman dio, eta posible da uda aldera kontzertu batzuk ukitu berezi horrez

Mikel Urdangarinen kontzertuak jatztea.

Letrei dagokienez, gehienak Urdangarin berak egin dituen arren, Iñaki Aurrekoetxea eta Arkaitz Estiballes bertsolariek ere egin dituzte horietako batzuk. Hauek ere ukitu berezia eman diote diskoari, bizkaiera erabili baitute beren hitzetan. Urdangarinek adierazi duenez, diskoa bizkaitarra izatea lortu dute. Hala ere, abeslari zornotzarrak bizkaiera modu naturalen sartu du; «bizkaiera sartzean ez dut inolako errebin-

dikaziorik egin nahi izan eta ez da batuaurren aurka egindako ezer; modu naturalen erabili dut, bizkaiera ere bultzatuz, baina batuarekin elkarbizitzen».

Diskoan aritutako beste musikariak hauek dira: Eñaut Elorrieta (gitarra akustikoa), Igor Arzuaga (pianoa eta baxua), Luis Camino eta Pello Ramirez (txelo eta soinua). Beñat Serna, Iñaki Zabaleta, Aritza, Aitziber eta Josu Zabalak ere esku hartu dute kolaboratzaile gisa, eta beste zenbait lagun ere aritu dira grabazioan.

Abian da Bertsolari Gazteen BBK saria eskuratzeko lehia

■ Arratia, Bilbo, Busturia, Durango, Lea Artibai eta Txorierriko taldeek hartuko dute parte

Erredakzioa / Bilbo

BERTSOLARI Gazteen VII. BBK Sarietako lehen saioak egin ziren herenegun eta atzo Igorren eta Durangon. Guztira 50 bertsolari ariko dira hilean kanporaketetan, Arratia, Bilbo, Busturia, Durango, Lea Artibai eta Txorierriko taldeetan banatuta.

Bilbo, Arratia eta Busturiako taldeak biltzen dituen multzoan, herenegun Igorren Arratia eta Bilboko taldeak aritu ziren norgehiagoka. Guztira 283 puntu jaso zuten arratiarrak eta 286 bilbotarrek. Atzo Durango, Lea Artibai eta Txorierriko taldeen multzoan lehen biak aritu ziren bertsotan Durangon. Azkenean, etxeko taldeak 292,5 puntu lortu zituen eta Lea Artibaikoek 286.

Hurrengo saioak datorren asteartean Txurdinagan (Bilbo-Busturia) eta biharamunean Markinan (Lea Artibai-Txorierri) jokatu dira. Beste bi sairen ostean, finala hilaren 28an egingo da Bilboko Kafe Antzokian.

Osinalde sarirako baliagarri diren Axari, Armuño eta Argi Berri sariak Gipuzkoako Goierrin

Erredakzioa / Donostia

OSINALDE SARIA apirilaren 24an egingo da, baina aurretik, sari horretarako baliagarriak izango diren hiru bertso saio egingo dira Gipuzkoako Goierrri bailarako hiru herritan. Aurreko urteko egiturari jarraikiz, sei bertsolarik osatutako hiru taldek jardungo dute, eta talde bakoitzetik bikote batek egingo du aurrera

Martxoaren 18an Axari saria jokatu da, Idiazabal. Martxoaren 27an, Armuño saria Brinkola auzoan (Oñati), eta apirilaren 10ean, aldiz, azken saioa, Argi Berri saria, Ordizian. Ekimen honen antolatzaileek saio bakoitzean parte hartuko duten bertsolariei afari bana eskainiko die.